

# BESTELAKO XEDAPENAK

## HEZKUNTZA SAILA

### 5043

*EBAZPENA, 2020ko urriaren 5ekoa, Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariarena, zeinaren bitartez argitara ematen baita Donostiako «Musikene» Goi Mailako Musika Ikastegi Baimenduaren Musika Interpretazioko Arte Irakaskuntzetako Masterraren titulua lortzeko ikasketa-plana.*

1614/2009 Errege Dekretuak, urriaren 26koak, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak (LOE) eta Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoak (LOMCE) arautzen dituzten goi-mailako arte-irakaskuntzen antolamendua ezartzen duenak, zeina, era berean, urtarrilaren 23ko 21/2015 Errege Dekretuak aldarazi baitzuen, 7.1 artikuluan ezartzen duenez, goi-mailako arte-irakaskuntzetako zentroek Arte Irakaskuntzen Goi Mailako Titulua eta Masterra lortzeko ikasketak eskaini ahal izango dituzte.

Era berean, Errege Dekretu horren 13.1 artikuluan, goi-mailako arte-irakaskuntzetako masterreko tituluen ikasketa-planak homologatzeko jarraitu beharreko prozedura ezartzen da.

Izapide guztiak bete ondoren, «Musikene» Goi Mailako Musika Ikastegi Pribatu Baimenduaren Musika Interpretazioko Arte Irakaskuntzetako Masterraren titulua lortzeko ikasketa-plana unibertsitateaz kanpoko ikastetxeen Estatuko Erregistroan inskribatu da 20012638 kodearekin, eta Hezkuntza eta Lanbide Heziketako ministroaren ekainaren 5eko EFP/666/2019 Aginduaren bidez homologatu da, eskuordetza bidez (EFP/1422/2018 Agindua, abenduaren 27koa), María de la Consolación Vélaz de Medrano Ureta Ebaluazioko eta Lurralde Lankidetzako zuzendari nagusiak (2019ko ekainaren 19ko BOE, 146. zk.).

Bestalde, apirilaren 11ko 79/2017 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak, 15. artikuluan zehazten du araubide bereziko irakaskuntzen ezarpenaren eta garapenaren programazioa eta diseinua Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzaren eginkizun eta eskumenetako bat dela, Musikene Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegiaren irakaskuntzak barne.

Hori guztia kontuan hartuta, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea «Musikene» Goi Mailako Musika Ikastegi Baimenduan ematen den Musika Interpretazioko Arte Irakaskuntzetako Masterraren ikasketa-plana, ebazpen honen eranskinean agertzen den moduan.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urriaren 5a.

Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendaria,  
EUGENIO JIMENEZ IBAÑEZ.

## ERANSKINA

## MUSIKENE EUSKAL HERRIKO GOI MAILAKO MUSIKA IKASTEGIAREN MUSIKA INTERPRETAZIOKO ARTE IRAKASKUNTZETAKO MASTER TITULUA LORTZEKO IKASKETA PLANA

Tituluari dagokion jakintza-adarra: Arteak eta Giza Zientziak.

Masterraren egitura:

Moduluak	ECTS Kredituak	Gaiak
I. Espezialitateko nahitaezkoak	62	5
II. Prestakuntza teoriko-praktikoko nahitaezkoak	24	5
III. Hautazkoak	12	2
IV. Kanpoko praktikak	5	1
V. Master amaierako lana	17	2
GUZTIRA	120	15

Ikasketa-plana:

Moduluak eta Ikasgaiak	Iraupena/Izaera	ECTS
Espezialitateko nahitaezko modulua		62
Solista errepertorioa I	Urtekoa/Lehen ikasturtea/Nahitaezkoa	26
Solista errepertorioa II	Urtekoa/Bigarren ikasturtea/Nahitaezkoa	21
Ganbera-musika/Ensemble I	Bigarren lauhilekoa/Nahitaezkoa	5
Ganbera-musika/Ensemble II	Hirugarren lauhilekoa/Nahitaezkoa	5
Ganbera-musika/Ensemble III	Laugarren lauhilekoa/Nahitaezkoa	5
Nahitaezko modulu teoriko-praktikoa		24
Garapen profesionala	Urtekoa/Lehen ikasturtea/Nahitaezkoa	5
Sorkuntza – Interpretazioa elkarrizketa	Bigarren lauhilekoa/Nahitaezkoa	5
Diziplinarteko sorkuntza-proiektuak	Hirugarren lauhilekoa/Nahitaezkoa	6
Grabazio eta postprodukzio teknikak	Laugarren lauhilekoa/Nahitaezkoa	5
Teknika instrumental hedatuak	Lehen lauhilekoa/Nahitaezkoa	3
Hautazko modulua (ikastaro bakoitzeko bat)		12
Artea eta gizartea	Lehen edo hirugarren lauhilekoa/Hautazkoa	6
Kulturen arteko elkarrizketa eta entzule berriak	Lehen edo hirugarren lauhilekoa/Hautazkoa	6
XX. eta XXI. mendeetako pentsamendu sortzailea eta estetika	Lehen edo hirugarren lauhilekoa/Hautazkoa	6
Kanpoko praktiken modulua		5
Kanpoko proiektua	Bigarren lauhilekoa/Nahitaezkoa	5
Master amaierako lanaren modulua		17
Ikerketaren metodologia	Lehen lauhilekoa/Nahitaezkoa	5
Master amaierako lana	Laugarren lauhilekoa/Nahitaezkoa	12
Masterreko Kredituak, Guztira		120